

COVID_19 larrialdi egoerarako Beterri-Buruntzako Udalak Arreta Zerbitzu zentralizatua eta telematikoa martxan jarri du eskualdeko eragile sozio-ekonomikoen bidelagun izateko.

Beterri-Buruntza Udalak **Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo** Udalak osatzen dute. Epidemiaren zabalkundea saihesteko zailtasunek neurri bereziak ezartzera behartu ditu erakunde publikoak eta horrek ekarri duen geldialdi ekonomikoarekin batera, kontziente gara herritarrengan eta eskualdeko eragile sozial eta ekonomikoengan zaurgarritasun egoera handitu dela eta ziurgabetasun egoera areagotu.

Zentzu horretan, **Beterri-Buruntzako Tokiko Garapenaren** helburua da gure eskualdeko enpresa eta autonomo guztientzako zerbitzu zentralizatua eskaintzea krisiaren inpaktua gutxitze aldera. Horretarako eskura ditugun gaitasun guztiekin eta gainontzeko administrazioekin batera (Gobernu Zentrala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Tokiadministrazioak), uneoro erabakitzen diren neurri publiko eta dirulaguntzak aztertu eta horiek eguneratu ahala, eskualdean aktibatze bideak erraztu nahi ditu informazioa eta aholkularitza eskainita..

Arreta zerbitzua eta informazio guztia sortu berri den web honetan eskegita dago. Eta informazioaren eguneraketa egiten joango dira eskualdeko teknikariak eta udal bakoitzeko teknikariak elkarlanean.

<https://beterriburuntza.eus/>

Horrez gain, web orrian aurkitzen den galdetegiaren bitartez, eskaera guztiak jaso eta banakako erantzuna ematea da helburua 24 orduren barruan interesatuarekin harremanetan jarrita.

Amaitzeko, telefono zenbaki bana ere aktibatu ditugu, zalantza horiek guztiak argitu eta behar bezalako aholkularitza espezifikora bideratzeko.

Telefono zenbaki orokorra: **943 304 221** (8:00-14:00)

Telefono zenbakia COVID-19: **699 691 175** (9:00-13:00 eta 15:00-17:00)

Larrialdi garai honetan kudeatutako arreta zerbitzu honekin unean-uneko eskaerei erantzun nahi zaie baina bide batez, jasotako informazioaren esplotazioa oso baliagarria izango zaigu geroko ondorioei aurre egiteko: behar kolektiboak detektatu eta eskualde mailako estrategia bateratua eraikitzeko. Gure helburua baita ekonomia ahalik eta azkarren berraktibatzea baina batez ere egoera honek guztiak inpaktu sozial gutxiena sortzea eskualde honetan.

Andoain, 2020ko apirilak 1

Beterri-Buruntza Udalak ha puesto en marcha un Servicio de Atención centralizada y telemática colaborando con agentes socio-económicos de la comarca para hacer frente a la situación de emergencia COVID_19

Beterri-Buruntza está formado por los Ayuntamientos de **Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil**. Las dificultades para evitar la propagación de la epidemia han obligado a las instituciones públicas a establecer medidas especiales y junto al estancamiento económico que ello ha supuesto, somos conscientes del aumento de la situación de vulnerabilidad y de incertidumbre en la ciudadanía y en los agentes sociales y económicos de la comarca.

En este sentido, el objetivo del **Desarrollo Local de Beterri-Buruntza** es ofrecer un servicio centralizado a todas las empresas y autónomos/a de nuestra comarca para minimizar el impacto de la crisis. Analizar y actualizar las medidas públicas y subvenciones que se decidan en cada momento, junto con todas las capacidades disponibles y el resto de administraciones (Gobierno Central, Gobierno Vasco, Diputación y administraciones locales), facilitando las vías de activación en la comarca a través de la información y el asesoramiento.

El servicio de atención y información está volcado en esta web recién creada y será imprescindible realizar la actualización de la información con la colaboración del personal técnico de la comarca y de cada ayuntamiento.

<https://beterriburuntza.eus/>

La web de Beterri Buruntza cuenta con un cuestionario con el objetivo de recoger todas las cuestiones y darles una respuesta individualizada a cada interesado/a dentro de 24 horas.

Asimismo, con el fin de reflejar cada problemática y trasladar la realidad a las instituciones públicas, se ha habilitado un servicio de atención centralizada y telemática.

Servicio general: **943 304 221** (8: 00-14: 00)
Teléfono COVID-19: **699 691 175** (9:00-13:00 y 15:00-17:00)

Con este servicio de atención, gestionado en este periodo de emergencia se pretende dar una respuesta a las demandas actuales, pero a su vez, la explotación de esta información será crucial para afrontar las consecuencias futuras, así como detectar las necesidades colectivas de nuestro tejido y poder construir una estrategia comarcal conjunta. Nuestro objetivo es reactivar la economía lo antes posible, pero sobre todo que esta situación produzca el menor impacto social posible en nuestra comarca.

Andoain, 1 de abril de 2020